



**2018KO URTARRILAREN 26KO  
TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hemezortziko urtarrilaren hogeita seian, arratsaldeko ordu bi eta erdietan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Ane Irastortza Izagirre, Aitor Altuna Oiarbide, Joseba Imanol Aran Barandiaran eta Marian Zufiria Apeztegia.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

**I.- AURREKO AKTA.-**

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutako onespenera aurkeztzen da 2018ko urtarrilaren 12an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

**II.- FAKTURAK.-**

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Aztertu ondoren 2017ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 140 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientean dagoena, HIRUROGEITA SEI MILA EHUN ETA HIRUROGEITA BI EURO ETA HOGEITA BI ZENTIMO (66.162,22 €) takoa eta 2018ko aurrekontuari dagokion 2 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientean dagoena, MILA BEDERATZIEHUN ETA LAUROGEITA BI EURO ETA HIRUROGEITA HAMASEI ZENTIMO (1.982,76 €) takoa onartzea erabakitzen da.

**III.- GIZARTE ZERBITZUETAKO LAGUNTZAK.-**

Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak aurkeztutako proposamenak aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartzen ditu:

**Etxeko Laguntza Zerbitzua.-**

- 17-11-09 zbk.dun esped.: zerbitzuan baja ematea urtarrilaren 24tik bere osasun egoerak hobera egin duelako.
- 18-11-01 zbk.dun esped.: zerbitzuan alta ematea urtarrilaren 23tik, astean 2 ordu etxeko garbiketara laguntzeko. Onuradunaren ekarpena zerbitzu kostuaren %24 izango da.
- 13-11-06 zbk.dun esped.: zerbitzua handitzea astean 12 ordutik 27 ordura, urtarrilaren 16tik aurrera. Kasu hauetan, hiru pertsona hauek oheratuta daudenez, laguntza pertsonala emango zaie goizean eta baita iluntzean ere. Onuradunen aportazioak honela izango dira: lehenengoarena, ordu eta erdiren %3; bigarrenengoarena, ordu eta erdiren %15; eta hirugarrenengoarena, ordu eta erdiren %15.



#### Gizarte Larrialdietarako laguntzak.-

- 18-01-001 zbk.dun esped.: etxebizitzaren alokairu gastuetarako hilean 80 €ko diru laguntza eta mantentze gastuetarako hilean 30 €ko diru laguntza ematea urtarriletik abendura.

#### Ifarra Hegoa programa.-

2017ko Ifarra Hegoa lankidetzan programan Ilargi beltza elkarteari onartutako diru laguntzari dagokionez, elkarte honek idatzi bat aurkeztu du diru laguntzari uko egiten diola adieraziz justifikaziorik ezin dutelako aurkeztua.

Honen aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, Ilargi Beltza Elkarteari emandako 1.750 €ko diru laguntza ematearena bertan behera uztea erabakitzen du.

#### Presoen familientzako garraio laguntza.-

- 12-13-03 zbk.dun esped.: bere senitarteko bat preso dagoenez, hura ikustera joateko bidaiarako laguntza moduan hilero 137,36 € ematea.

#### Rwanda taldeari diru laguntza.-

2017ko abenduaren 14tik 22ra bitartean antolatutako "Elkartasun astea"n egin diren ekitaldien gastuei aurre egiteko 677,15 €ko diru laguntza ematea.

#### IV.- KULTURAKO DIRULAGUNTZAK .-

Kulturako zinegotziaren proposamenen aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakiak hartzen ditu:

#### Oin Arin dantza taldea.-

2017ko maiatzaren 19an Azeria kultur gunean Korrontzi taldearekin batera emandako saiorako egindako erropa bereziko 715,32 €ko diru laguntza ematea.

#### Jose Inazio Insausti Jauregi.-

2017ko abenduaren 24an Olentzero eta Mari Domingiren ekitaldian asto batekin parte hartzeagatik 75 €ko diru laguntza ematea.

#### Juan Mari Agirrezabala Izagirre.-

2017ko abenduaren 24an Olentzero eta Mari Domingiren ekitaldian bi behirekin parte hartzeagatik 150 €ko diru laguntza ematea.

Kultura Batzordeak 2018ko urtarrilaren 17an egindako bilkuran egindako proposamenen aurrean, Tokiko Gobernu batzarrak, aho batez, honako diru laguntza hauek ematea onartzen du:



Herriko kultur taldeei.-

Kultur jarduerak burutzeagatiko 2017 urtean:

TALDEA	ZENBATEKOA
Oin Arin dantza taldea	12.016,00 €
Kantaka abesbatza	2.081,90 €
Antzar Gazteak txistulariak	2.302,10 €
Lazkao abesbatza	600,00 €
Junda jo txaranga	3.000,00 €
GUZTIRA .....	20.000,00 €

V.- EUSKARAKO DIRU LAGUNTZAK .-

Euskara eta Hezkuntzako zinegotziak egindako proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, honako erabaki hau hartu du:

Motorra eta autoa gidatzeko baimena euskaraz ateratzeko diru laguntza.- 2017. urtean motorra eta autoa gidatzeko baimena euskaraz ateratzeko diru laguntza eskaera 22 lagunek egin dute, eta diru laguntza honetara heltzeko jarritako baldintzak betetzen dituztela baieztatu ondoren, bakoitzari 100 €ko diru laguntza ematea erabakitzen da. Hau honela, bere espedientean dagoen zerrendako eskatzaileei guztira 2.200 €ko diru laguntza ematea erabakitzen da.

VI.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, arratsaldeko hirurak direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

